

**4.—TOPONIMIA ETA ONOMASTIKA
TOPONIMIA Y ONOMASTICA**

**NAFARROAKO YERRI IBARREKO LEKU-IZEN
NAGUSIEN ZENBAIT BERRI**

Miren Egaña Goya

Nafarroako erdialdeko mendebaldean dago Yerri deritzan harana. Bai lurralde horiek nola ingurukoek «Tierra Estella» delakoa osatzen dute gaur egun. Gure haranak luzeantzeko irudia du, 246,35 km.² ditu eta Ifar-hegoalderuntz, dago. Mendipean kokaturik dago, nahiz eta zenbait leku lautadatik hurbilago egon.

Yerri ibarrak muga egiten du Iparraldean Urbasa eta Andia mendikateekin, hegoaldean Villatuerta eta Lizarra uri biek, ekialdean Gesalaz ibarrarekin, Alloz-ko zingirakin eta Zirauki uriarekin, mendebaldean azkenik Allin ibarrarekin eta Abarzuza lekuarekin. Azken hau garai batean Yerri haran barnean baldin bazegoen ere, 1860.ez gero berezita dago, herri aske bat bezala.

Yerri harana honoko lekuz osaturik dago gaur egun: Alloz, Arandigoyen, Arizala, Arizaleta, Azkona, Bearin, Eraul, Grozin, Ibiriku, Iruñela, Lakar, Lorca, Murillo, Murugarren, Riezu, Ugar, Villanueva, Zabal eta Zurukuain. Gainera Muru, Erendazu, Montalban eta Zunbeltz «coto redondo» deritzate-nek ere osatzen dute Yerri Harana.

Gaur egun Lezaun udala ez baldin badago Yerri udalaren barruan ere, 1952.ean bereziki bait zen, bai kultura aldetik bai historikoki Yerri barruan kontsidera daiteke.

Alde batera utziaz historia-aurreko arazoak, bai eta erroamatarren garai-koak ere, aztarna asko bertan aurkitu arren, ez bait digute gure haranaren berri zehatzik ematen, berandugoko datu zahatzei helduko gatzazkie ahal delarik behintzat.

Nafarroako erresumako lehendabiziko kronikalari izan zen P. Moret jesuitak dionez 883.ean Almudir, Mohamed erregearen semeak Zaragozaren aurka borroka egin zuen eta itzultzean *Deyo* lurraldeak eraso zituen.

«Crónica Najerense» delakoan 921.eko musulmanen kanpainei buruz honela dio: «Degium ex parte intrauit et predauit sed de castris et ciuitatibus nullam cepit.»

Beranduago «Cartulario de Siresa» deituan ,971.ean honelaxe agertzen da: «Facta cartula confirmationis sub die III kalendas iulias, era millesima nona, regnante Sancio Garsianis et Urracha, regina in Aragone et Pampilona et *Deio...*».

1060.ean Sancho de Huertalo abadearen testamentuan, «Cartulario de San Juan de la Peña» delakoan bildurik, honela aipatzen da gure harana: «...et senior Sancio Fortuniones de Sancti Stephani de *Deio...*».

Lehen aipatu «Cronica Najerense» delakoan 1152. ngo dokumentu batean honela dio Alfonso I.-ren (739-757) mandatuari buruz: «Alauan namque Bizcayam Aycone et Urduniam, a suis reperitur semper esse possessas, sicut Pampilona, Deorsum atque Berrotia.»

Oso antzeko testua agertzen da Alfonso III kronikan: «Alava namque Vizcaya, Alaone et Urdunia a suis incolis reperiuntur semper esse possessae, sicut Pampilona, *Degius* est, atque Berroza».

972.ez gero Iruñeko kortea Najera-ra eraman ornen zuten J.M. Lacarra-ren idazlanean ikus daitekenez: «Deyo y Berrueza, según los cronistas asturianos fueron poseídas por sus antiguos habitantes, es decir, que no hubo instalación de población musulmana ni reprobación. Algunos reyes dicen reinar en Pamplona y *Deyo*, lo mismo los obispos los son de los dos lugares. Incluso doña Toda gobierna 'in *Deio* in Lizarraga'.»

1.033.ean Nafarroako Sancho el Mayor-ek San Esteban de *Deio* gaztelua Santa Maria de Iratxe monastegiaren eskuetan dagoela baiezten du. «Libro Rubro de Iranzu» delakoan honokoak jaso daitezke: «Memoria de la Peyta de los coylaços que avernos en *Deyarri* (fol.10.r.)» eta aurrerago «Memoria de la peyta de los de toda *Deyerri* (fol.14.r.)».

Jimeno Jurio-k dionez liburuaren zatirik nagusia 1.256.ean edo idatzia bide da.

«Registro de Comptos de 1.280» delakoan ez da agertzen «Valle de *Yerri*» bezala, baina bere orde z bertako zenbait herri agertzen da.

Orduetik aurrera haranak dituen herriek, lekuek nortasun bat lortzean, ez zaigu agertuko dokumentoetan «Tierra Estella» deritzan inguru zabala adierazteko, gaurko mugen barruan dauden lurraldeak izendatzeko baizik.

1366.eko «Fuegos» deitutakoetan Val de *Deyerri* bezala agertzen da.

1427.eko Lizarrako Merinaldeko «Fuego»-etan gure Valle de *Yerri* agertzen da 191 su dituelarik.

A. Campion-ek dionez oso garrantzitsua da Principe de Viana-k diona: «...é llamase la Antigua Navarra estas tierras: son a saber, las cinco villas de Goñi, de *Yen-i*, Valdelana, Amescosa, Valdegavol, de Campezo e la Berrueza é Ocharan». Campionen iritxiz «Antzinako Nafarroa» Lizarrako Merinaldean kokaturik zegoen.

J. Caro Barojak esku artean daukagun haran-izen honi buruz «El Príncipe da *Yerri* y el Fuero *Deyerri*. Esta forma nos acerca a *Deyo-erri*, tierra de

Deyo, que no es sino el «*Degius*» del «Cronicón», mucho más antiguo y de otros documentos» dio.

Principe de Vianaren arbasoa zen Carlos III el Noble deituak, 100 urte lehenago ematen digu «Yerri»ren berri barkatzean, baio Pero Periz de Arizala—Ouená izengoitiz—, bai Miguel García de Ibiricu Val de Yerriko biztanleek zituzten zorrak.

Orreagako ospitalak XIV mendean, beste batzuen artean Valle de *Deyerri-n* dagoen Beriaingo eliza berea zuela badakigu.

1378.ean Miguel García Sayllinas *Deyerriko* Arzipretea zen.

1607 eta 1612.eta «Cuarteles» direlakoetan gure haran hau Valle de *Yerri* bezala agertzen da.

Lehenengo karlistadan, bai eta hirugarrenean ere borroka gogorak egon ziren Yerri-ko Arandigoyen-en, Muru mendian eta Lorka, Lakar eta Alloz-en.

Orain artekoa laburtuz hauek dira gure iritiz «Valle de *Yerri*» -ri buruz agertzen diren fetxarik nagusienak:

883-923	Alfonso III «Crónica»-n	DEGIUS
921	«Crónica Najerense»-n	DEGIUM
971	«Siresako Kartularioan»	DEGIO
1030	Sancho el Mayor erregeak, Sta. M. ^a de Iratxena dela San Esteban de baiezten du	DEIO
1060	San Juan de la Peña-ko Kartularioan Sancti Stephani de	DEIO
1152	«Crónica Najerense» delakoan	DEORSUM
1117	Nafarroako «Fuero General» delakoan	DEYERRI
1366	Nafarroako Erresumako «Libro de Fuegos»-en	DEYERRI
1378	Miguel Garcia de Sayllinas, arzipretea zen	DEYERRI-n
1607-1612-urteetako	«Cuarteles» direlakoetan VALLE DE YERRI IX, X, XI eta XII mendeetan agertzen den erara izen hori finkatu gabe dagoela argi dago, lekuko: «DEGIUS, DEGIUM, DEGIO, DEORSUM, DEYERRI, DEYO, DEIO.»	

Oso harrigarria iruditu zaigu «*DEORSUM*» hori «Cronica Najerense» delakoanizan ere J. Corominas-ek dionez: «Hay variante YOSO es escrituras aragonesas (escrita goso en 1060 y 1084). También se encuentra DIOS y DIUS, pero no creo que aquí tengamos conservación del grupo DI- del latín vulgar, lo que sería contrario, a la fonética de este idioma, sino más bien contracción de DEYOS, DEYUS». Hori horrela balitz noizpait azentoa aldatu egin bide zen eta ondorio bezala hitzaren azken -S ahuldu egingo zen galtzearte. Pentsa daiteke bestalde DEORSUM hori kopiatzailearen errataren bat edo ultrazuzenketaren bat izatea, behin bakarrik agertzen baita horrela. DEIO eta bere kidekoak diren DEGIUS, DEGIUM, eta DEGIO berriz, gehiagotan agertzen dira.



Hau ikusirik kontutan hartu beharko dugu bai J. Moret-ek ziona, bai J. Caro Baroja-k ere, *Deio-erri-tik* sortua behar duela Yerri izenak alegia. Teoria hau halabaina ez zaigu guztiz egokia iruditzen; asko dira «URI», «IRI» eta «Uli» herria adierazteko bere deituran agertzen duten herriek. Hala nola:

Iriberrri —Nafarroan (Valdorba, Valle de Atez, Aezkoa).
 Iraberri —Nafarroan (Arzibar)
 Iriso —Nafarroan (Valle de Izagaondoa)
 Uli —Nafarroan (Arzibar, Valle de Lónguida)
 Ulibarri —Araban (gaur egun hutsik dagoen herria)
 Ulibarri Nafarroan (Valle de Lana)
 Uribarri Gipuzkoan (Oñati)

beste askoren artean. Guzi hauek ikusita. ez dirudi, antzinako izenetan behintzat, *herri* hitz konposatuan agertzen denik; gaur egun Goierri edo Txorierri eta antzekoetan agertzen bada ere. Zalantzan ipini behar dugu bada *Yerri Deio-erri-tik* datorrela.

Aran edo Iban-aren izenarekin batera udal hortako diren beste lekuenak aztertu, nahi ditugu lan honetan. Alfabeto ordenean agertuko ditugu bada.

ALLOZ

1366.eko «Fuegos» direlakoetan Aylloz bezala agertzen da. Corona Baratech-ek dokumentoetan 1000-1035 urteetan agertzen dela dio. P. Madozek esaten digu bestalde «río Salado» delakoaren eskubi aldean dagoela, 24 etxe dituela eta bere parrokiak Egiarte Andre Mariaren izena duela. 1459.ean gerra zibilak zirela eta, hutsik gelditu zen. Gaur egun bere lurraldeetan zingira bat egin dute.

ARANDIGOYEN

1366.eko Fuegoetan horrela agertzen da. P. Madozek bere «Diccionario Geográfico, Estadístico, Histórico de España y Posesiones de Ultramar» liburuetan honela dio: «Lugar del Valle de Yerri, sentado en una pequeña colina que mira al S. y sobre la izquierda del arroyo que baxa de Mongiliberri...» eta aurrerago dionez Teobaldo I -ak bere biztanleei zerga guztiak kendu zizkien, frankoak egin zituen beraz.

Lenengo eta hirugarren karlistadetan borroka gogorak egon ziren bere lurraldeetan.

Bere mugak, honoko hauek dira: ifarrean Grozin, ekialdean Murillo, hegoaldean Villatuerta eta Valle de la Solana eta mendebaldean Lizarra. Herri honen deituran (*h*)*aran* = ibar eta *goyen* = goien agertzen direla dirudi:

ARIZALA

1366.eko Fuegoetan *Ariçala* bezala agertzen da. Ifarrean Azkona eta Iruñelakin mugatzen du, hegoaldean Zabalekin, ekialdean Ugar-ekin eta mendebaldean Abarzuzakin.

1070.ean ere Ariçala bezala agertzen da.

Gaur egun haranaren uriburua da; bertan dago udaletxea.

Bere deituran *aritz* zuhaitz izena asma daiteke.

ARIZALETA

1366.ean *Ariçaleta* grafiaz agertzen da. Aurrekoaren kasuan bezala *aritz* -en konposatu bat dela dirudi eta hitzaren amaieran -*eta* atzizki anizkarria ikus daiteke.

AZKONA

Ayzcona bezala agertzen da 1366.eko Fuegoetan. Herriaren goiko aldean Mendigaña Andre Mariaren ermita bat dago.

K. Mitxelenaren iritxiz azkon abere baten izena izan daiteke, hots! gaztelaniazko «tejon» hain zuzen. Fletxa edo dardo esanahia ere bildu dugu.

BEARIN

Eraul eta Murukin mugatzen du ifarraldean, Murugarrenekin ekialdean, hegoaldean Lizarrakin eta mendebaldean Eraulekin.

Be(he) = azpian, behean eta *arin-ekin* sortutako izen konposatua izan daiteke.

ERAUL

Ifar eta ekialdean Abarzuzarekin egiten du muga, hegoaldean Bearinekin eta mendebaldean Allinekin.

GROZIN

1366.eko Fuegoetan *Goroçin* bezala agertzen da. Behar bada bere deitura *goro(n)a* < *corona* latineko hitzetik dator.

IBIRIKU

Ifarraldean Lezaun, hego eta mendebaldean Abarzuza eta ekialdean Iruñela ditu mugak. 1366.eko Fuegoetan *Yviricu* agertzen zaigu.

Leku hau, Tudelako trukatzailarena zen, Martin Jenieniz de Lergarena alegia. Azken honi Olivako monastegiak erosi zion eta Carlos III-ri eman zion, urtero 100 libra eta 200 «cahiz» gari monastegiari emateko baldintzarekin. 1368.ean aipatu erregeak Ibiriku eta Lodosa iriak betirako eman zizkion bere adiskide zuen Cardonako birkunte zen Hugori eta bere ondorengoei hartaz nahi zutena egiteko: «Para facer de eillos a su voluntad» dio.

K. Mitxelena (*h*)*ibi* = «vado» gaztelaniaz, konposaketan dutenen artean ipintzen du Ibiriku.

IRUÑELA

1366.eko Fuegoetan *Yruynnela* agertzen da. Bere mugak honoko hauek dira: ifarraldean La Planilla mendia, hegoaldean Abarzuza, ekialdean husturik gelditu zen Erendazu eta Azkona mendebaldean Ibiriku.

LAKAR

Ifarraldean Alloz, hegoaldean eta ekian Lorca eta mendebaldean Murillo ditu mugak 1366.eko *Fuegoetan* Laquarr bezala agertzen da. 1450.eko gerra zibiletan Nafarroako beste leku asko bezala hutsik gelditu zen. «Becerro de Leyre» delakoan 1098 eta 1104 urteetan azaltzen da.

LEZAUN

Ifarraldean Urbasa eta Andia mendikateak ditu, hegoan Arizaleta, Azkona eta La Planilla, ekian Gesalaz ibarra eta mendebaldean Abarzuza. 1366.eko Fuegoetan *Leçahun* agertzen da. 1586, 1608, 1616 eta 1674 urteetan Notarioa zuela ba dakigu. Yerri heraneko lekurik zabalena da. 1952.ean ibarretik berezi egin zen berak bakarrik udala osatuz. Bere deituran *leze* = gazteleraz «sima» agertzen zaigu.

LORKA

Lorrqua bezala agertzen da 1366.eko Fuegoetan. Alloz eta Lakar ifarrean, ekian Zirauki eta Villatuerta uriak eta mendebaldean Murillo dira bere mugak. «Rio Salado» deritzana pasatzen da bere lurraldeetatik. XII mendean Aimery Picaud erromesak aipatzen du herri hau: «Por el sitio que en la región

oriental llaman Lorca corre el río que se llama Río Salado». Horrela agertzen zaigu bada, Santiagora doan bidea Garesetik Lizarrarako bitartean Lorkatik pasatzen dela.

MURILLO

Bere mugak ifarraldean Zurukuain, hegoaldean Villatuerta, ekialdean Lakar eta Lorka eta mendebaldean Grozin eta Arandigoyen dira.

1366.eko Fuegoetan *Muriello* bezala agertzen da. 1267.ean Teobaldo II erregearena zen eta 1271.ean D. Enriquek gutxitu egiten dizkie zergak «10 libras de pecha» ordaindu araziz, Lakar eta Alloz bezala hutsik gelditu bait zen garai artako gerrak zirela eta.

Ba dirudi *murru* - êllu(m) > muriello eman duela muru-ren eratorriak.

MURUGARREN

Ifarraldean Abarzuza, hegoaldean Grozin ekialdean Zabal eta Zurukuain eta mendebaldean Bearin eta gaur egun «coto redondo» den Muru dira bere mugak.

1450.eko gerrate aurretik zazpi nekazari zituen eta 1460.ean lau besterik ez ziren. Lau hauetatik bik etxea errea zuten gainera.

Mitxelenaren iritxiz Murugarren eta Murubarren gauza bera dira, Muru kasu honetan aurrekoan bezala gaztelaniazko «collado» izan daiteke eta hemen *-barren* atzizkiz gainera.

RIEZU

1366.eko Fuegoetan *Rieçu* bezala agertzen da. 1612 eta 1647 urteetan notarioa izan zuen eta 1802.ean bost errota zeuden, gaur egun ez da ia horrelakorik erabiltzen.

Bere mugak honoko hauek dira: ifar eta ekialdean Gesalaz ibarra, hegoaldean Villanueva eta mendebaldean Arizaleta.

Mitxelenaren iritxiz gaurko Riezu antzinako (1024.eko) Arrieçu izan daiteke.

UGAR

1366.eko Fuegoetan *Hugarr* bezala azaltzen da. «Becerro de Irache» delakoan 98 v^o-an Ugarr bezala agertzen da 1209.ean.

Ifarraldean Arizaleta, ekialdean Villanueva, hegoaldean Allozko zingira eta mendebaldean Arizala ditu bere mugak.

Ugar -ek gaztelaniazko «agua turbia», «torrencial» -en balioa ornen du.

VILLANUEVA

Ifarrean Riezu, hego eta ekialdean Allozko zingira eta mendebaldean Ugar dira bere mugak.

1366.eko fuegoetan Villanueva azaltzen da. Bertako parrokiako 1587.eko eskuiskribu batetan Villanueba agertzen da.

ZABAL

1366.eko Fuegoetan *Çaua* bezala agertzen da. Ifarraldean Arizala hegoaldean Zurukuain, ekialdean Montalban «coto redondo» delakoa eta mendebaldean Abarzuza eta Murugarren dira bere mugak.

Zabal gaztelaniazko «ancho» edo «plazoletaren» parekoa da.

ZURUKUAIN

1366.eko Fuegoetan *Çuriquoain* agertzen da. Bere mugak ifarrean Zabal, ekian Montalban, hegoan Grozin eta Murillo eta mendebaldean Murugarren.

Deitura honen amaieran *-ain* atzizki eztabaidatua agertzen dela dirudi. Batzuentzat atzizki honetan gure *-gain* atzizkia besterik ez dago, beste batzuentzat berriz latineko *-enus*.

Badira leku hauetaz gainera aspaldi denik hutsik dauden leku asko gure haran honetan. Hustuketa hauek oso aro eta arrazoi desberdinekoak dira. Batzutan, dagoneko aipatutako gerra zibilei zor zaizkie, beste batzutan Erdi Aroan zehar egon ziren izurritei eta azkenik, eta guregandik urbilago, uri nagusietara lan eske joateari.

Erdi Aroan honoko hutsik zeuden herriak aipa ditzakegu:

ARRAZTIA (edo Arritia)-Azkona eta Lezaunen artean. 1427.eko Fuegoetan hutsik.

ZIRIZA — Azkona eta Arizaleta artean. Azkonarena zen eta oraindik orain erromaniko elizak zutik dirau.

GERAYNO — XIII mendean horrela zegoen Riezu eta Arizaleta artean. 1534.ean *Guerán* bezala agertzen da.

JANDOAIN — Hutsik geratzean Murillokoek bereganatu zuten.

LORCACHIPIA — Lorka, Arandigoyen eta Murillo artean.

MURUMENDI (Muromendi) — Alloz eta Lerat (Lerate) artean.

- SANTA MARIA MUNO — Zabalena zen. Garrizek dionez Arizaletakoek baliatzen zuten, Idoatek dioenez berriz Zabalekoek.
- GURINDOAIN — 1268.ean besterik ez da agertzen.
1800.ean honoko hustutako herriak zeuden:
- ERENDAZU — baserri batean bihurturik.
- ARRASTIA — Azkona eta Lezaun artean.
- ZIRIZA — Baseliza zuen oraindik eta bertan ermitaño bat bizi zen.
- GERANO — 1534.ean *Guerán*.
- BURUMENDI — 1534.ean Murumendi, Alloz eta Lerate artean.
- LORCACHIPIA — Lakar eta Lorkaren arteko lurraldeak.
- MUNONDOA — Zabalen. Antzinako Santa M.^a de Muno izan bide da.
- NOVAR — XVII mendean señorío bezala zegoen.
Gaur egun aurkitzen diren herri hutsak:
- EZA — Arizalan dagoen gaztelu bat.
- MONJILIBERRI — Irantzuko monastegikoa zen.
- MONTALBAN — Ugar, Alloz, Murillo eta Zabalen artean.
- NOVAR — Jauregiarena zen elizaren aztarnak agertzen ditu.
- ERENDAZU — Riezu, Arizaleta, Ibiriku eta Azkonaren artean zegoen jauregia.
- ARRAZTIA — Altadill-ek aipatzen duen Arritia izan daiteke. Azkonakoek bere lurraldetako ifarraldean dagoen herri zahar bat dela diote.
- ASNA — Montalbanen ondoan.

BIBLIOGRAFIA

- ALTADILL, JULIO, «Geografía histórica de Navarra-Los Despoblados». Bol. de la Comisión de Monumentos Históricos de Navarra, tomo X, Pamplona, 1919.
- ARRAIZA, JESUS, «Los fuegos de la Merindad de Estella en 1427». Príncipe de Viana, Pamplona, n.º 110-111, 1968.
- AZKUE, RESURRECCION M.^a de, «Fonética Vasca». Bilbao, 1919.
- AZKUE, RESURRECCION M.^a de, «Morfología Vasca», reedición, Bilbao, 1969.
- AZKUE, RESURRECCION M.^a de, «Diccionario Vasco-Español-Francés», 2.^a edic., Bilbao, 1969.
- BARBERO, A-VÍGIL, N., «Sobre los orígenes sociales de la reconquista». Salamanca, 1974.
- CAMPION, ARTURO, «Navarra en su vida histórica», Geografía General del País Vasco-Navarro», tomo 1.
- CARO BAROJA, JULIO, «Observaciones sobre el vascuence» - Fontes Linguae Vasconum. Pamplona, año 1, n.º 1, 1969.
- CARO BAROJA, JULIO, «Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en su relación con la Latina». Actas Salamantincensia t. 1, n.º 3. Salamanca, 1946.
- CARRASCO PEREZ, JUAN, «La población navarra en el siglo XIV». Pamplona, 1973.
- CASTRO, J.R., «Carlos III el Noble, Rey de Navarra». Pamplona, 1967.
- COROMINAS, JOAN, «Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana». Madrid, 1954, y stes.
- CORONA BARATECH, «Toponimia Navarra en la Edad Media». Huesca, 1947.
- FUENTES PASCUAL, F., «Catálogo del Archivo General de Protocolos de Estella 1955 en el Arch. de Navarra».
- GARCIA MERCADAL, J., «Viajes de extranjeros por España y Portugal». Madrid, 1952.
- GARRIZ ARRANZ, JAVIER, «Despoblados». Pamplona, 1973.
- IDOATE, FLORENCIO, «Poblados y despoblados en Navarra» (1534-1800). Rev. Institución Príncipe de Viana, n.º 108-109, Pamplona, 1959.
- JIMENO JURIO, JOSE M.^a, «El Libro Rubro de Iranzu», Inst. Príncipe de Viana, n.º 120-121. Pamplona, 1958.
- LACARRA, JOSE M.^a, «Colección Diplomática de Irache», vol. I. Zaragoza, 1965.
- LACARRA, JOSE M.^a, Estudios de Historia de Navarra. Pamplona 1971.
- LACARRA, JOSE M.^a, Historia del Reino de Navarra. Pamplona 1972.

- LACARRA, JOSE M.^a, *Vasconia Medieval historia y filología*. San Sebastián 1957.
- LHANDE, PIERRE, *Dictionaire Basque-Français*. París 1926.
- LIBRO PRIMERO DE IRANZU, «Arch. Gen. de Navarra. Copia del Servicio Nacional de Microfilm. Original en el Archivo Histórico Nacional. Códice 363.
- MADOZ, PASCUAL, «Diccionario Geográfico, Estadístico, Histórico de España y posesiones de Ultramar», 16 tomos. Madrid, 1847.
- MITXELENA, LUIS, «Fonética Histórica Vasca». San Sebastián, 1961. «Apellidos Vascos». San Sebastián, 1955. «Introducción fonética a la onomástica vasca», *Rev. Emerita*, vol. XXIV, fasc. 1 y 2. Madrid, 1956. «Notas lingüísticas a la Colección Diplomática de Irache». *Fontes Linguae Vasconum*, n.º 1. Pamplona, 1969. «Textos Arcaicos vascos». Madrid, 1964.
- MORET, JOSE, «Anales del Reino de Navarra». Tolosa, 1890.
- PEREZ DE URBEL, «Sancho el Mayor de Navarra». Madrid, 1950.
- REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA, «Diccionario Geográfico Histórico de España». Madrid, 1802.
- UBIERO ARTETA, ANTONIO, «Cartulario de Siresa». Valencia, 1960. «Cartulario de San Juan de la Peña». Valencia, 1963. «Crónica de Alfonso III». Valencia, 1971. «Crónica Najerense». Valencia, 1968. «Colección Diplomática de Pedro I de Aragón y de Navarra». Zaragoza, 1951.
- YANGUAS Y MIRANDA, JOSE, «Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra». Pamplona, 1964. «Crónica de los Reyes de Navarra». Pamplona, 1843, y Valencia, 1971.
- ZABALO ZABALEGUI, J., «Algunos datos sobre la regresión demográfica causada por la peste en la Navarra del s. XIV», en *Miscelánea ofrecida a José M.^a Lacarra*. Zaragoza, 1968. «El Registro de Comptos de Navarra en 1280». Pamplona, 1972.
- ZUNZUNEGUI, J., «El reino de Navarra y su Obispado de Pamplona durante la primera época del cisma de Occidente». San Sebastián. 1942.